

Malabarismoak

Zein da objektuen grabitate-zentroa?

Materialak

– Erregela bat



Zer egin

1. Jarri erregela posizio bertikalean, mutur bat zure esku-ahurrean duzula.
2. Askatu erregela, eta eutsi orekari ahal duzun denbora gehiena. Sentitzen duzu erregelaren aurka egiten duen indarra?
3. Biratu erregela, eta jarri posizio horizontalean
4. Jarri erregelaren erdigunea hatz batean, eta mantendu erregela orekatuta.

Zer gertatzen da?

Erregelaren egonkortasuna haren pisuaren, edo beheranzko indarraren, banaketaren mende dago. Erregela orekatzeko, grabitate-zentroa aurkitu behar duzu. Grabitate-zentroa da objektuaren pisu guztia kontzentratzen dela dirudien lekua. Zaila da erregelari orekan eustea bertikal jarrita, erregelaren pisu handiena goian edo behean dagoelako. Erregela horizontal jarritakoan, erraz orekatzen da hatzean, indarra berdin banatzen baita albo banatan. Oreakariak grabitate-zentroaz baliatzen dira, kable garai batean orekari eusten laguntzeko. Makila luze bat izaten dute eskumuturren mailatik behera, sokan ibiltzen diren bitartean. Makilak haien grabitate-zentroa jaisten du, eta hala, errazago eusten diote orekari.

